| GARAZILH4 | MATEMATIKA | BURUKETAK 1 | IKASTURTE AMAIERA19/20 |
|---|---|---|---|

**Antzoki batek bi solairu ditu. Beheko solairuan 23 ilara daude eta ilara bakoitzean 24 eserleku. Goiko solairuan, berriz, 15 ilara daude eta 18 eserleku ilara bakoitzean.**

**Zenbat eserleku ditu guztira antzokiak?**

**GASTEIZKO ANTZOKI NAGUSIA**



**Argazkia: REDESCENA.NET**

**DATUAK:** Aukeratu

- Bi solairu ditu.
- Beheko solairuan 23 ilara eta 24 eserleku.
- Goiko solairuan 18 ilara eta 15 eserleku.
- Goiko solairuan 15 ilara eta 18 eserleku.

**GALDERA(k):** Aukeratu

- Zenbat ilara ditu guztira?
- Zenbat eserleku ditu guztira?

**PLANA AURRERA ATERA:** Aukeratu

- Kalkulatzeko, hau egingo dut: 2+23+24+15+18
- Kalkulatzeko, hau egingo dut: 23+15=38; 15+18=33; 38+33=71
- Kalkulatzeko, hau egingo dut: 23x24=552; 15x18=270; 552+270=822

**EMAITZA EGIAZTATZEA:** Aukeratu

- Emaitza zuzena den jakiteko hau egingo dut: 822-552 eta gero zati 18
- Emaitza zuzena den jakiteko hau egingo dut: 822+552+270

| GARAZILH4 | MATEMATIKA | BURUKETAK 1 | IKASTURTE AMAIERA19/20 |
|---|---|---|---|

## TREN GELTOKIKO ORDUTEGIAK




IRUDIA: Txanela LH 4 Baga Biga liburua

**1. Gaur goizean tren geltokira hurbildu gara Parisetik datorren senide baten bila. Nahiko goiz heldu gara, 09:00etan hain zuzen ere. Zenbat denbora itxaron beharko dugu senidea agurtzeko?** Idatzi erantzuna.

**2. Geltokian geundela, nire gelako lagun bat ikusi dut itxaron-gelan. Galdetu diot ea noren zain zegoen eta zera erantzun dit: Madrilera doazela familiako guztiak, asteburu pasa egin behar dutelako. Bidaia luzea dela eta 6 ordu eta erdi iraungo duela esan dit. Beraz, zein ordutan helduko da nire laguna Madrilera?** Idatzi erantzuna.

**3. Bozgorailutik esan dute, Parisetik datorren trena Donostian geldirik dagoela eta 45 minutuko atzerapenarekin helduko dela, hau zoritxarra! Zer ordutan iritsiko da orduan nire senidea?** Idatzi erantzuna.